


mendia ▸ IBILBIDEAK

Durangaldeko Pagasarri



Mugarako landa eta Oiñiturri arteko bidea. ALBERTO ERRAZTI

Liburu eta Disko Azokaren hurbiltasuna aitzakia hartuta, Durangaldean osatuko dugu txangoa

ALBERTO ERRAZTI

Minduta-edo sentituko zen, beharbada, irakurleren bat 1998an izen bereko artikulua idatzi nuenean EUSKALDUNON EGUNKARIAN. Hone-laxe hasten zen: «Bai, bilbotar peto-peto hori, benetan duk! Hemen, *aldeanoz* jositako Durangalde deitzen den honetan ere, badiagu beste Pagasarri bat. Baze-kiat aurkikuntzak lur jota utzi hauena; botxoko hainbat eta hainbatek legez, hik ere haurtzaroko lehen mendi pausoak bertara zuzendu hituen eta...». Sarrerak tonu berari eusten zion gero ere, Bilbotar harrokeriaren topikoa umore ziprintinekin busti nahi izan nuelako. Helburua, beraz, zehatza izan zen, irakurlearen begirada erakar-teza zirikatuz, eta horrexegatik ez-kutatu nuen, esaterako, Juanjo Sansebastianen *Pagasarri* izeneko liburu ederra, edo urteetan Bilbon bizi izandakoa nintzela. Nik neure Pagasarri goraiatu behar nuen, Durangaldeko Pagasarri.


HARKAITZ TXIKIA, ERRALDOI ARTEAN. Pagasarri leku izena ez da atzo goizekoa, XVI. mendean topa ditzakegu

Erreferentziak

00:00 Mañaria
01:10 Mugarako landa
01:30 Pagasarri
01:45 Oiñiturri
02:40 Mañaria



Desnibela 647 m
Zailtasuna
Luzera 8,5 km
Denbora 2 ordu 40 min



lehen lorratzak Durangoko udal artxiboko aktetan; hori bai, inoiz Pagasarrieta ere irakur daiteke. Etimoaren esanahia ederki gorde du inguruak, eta Bilbokoan ez bezala, pagoak ere badira, ugari gainera. Nahiz eta Durango udalerriko tontorrik garaiena izan, ez dute Federazioaren Ehun Mendien katalogoan sartu, lehiakide gogor-rrak baititu inguruan (Mugarra, Leungana, Artaungana, eta abar). Hainbat herritatik abiatu daiteke bertara: Iurretako Orozketa, Durangoko San Roke, Zornotzako Bernagoiti, edo Dimako Artaun

auzoetatik. Nik neuk, ostera, *harrobieen herria* aukeratu dizuet: Mañaria.

ZENBAT BIDE, HAINBAT ITZULBIDE. Mañariko plazan dagoen *Kirikiño* eus-rikal idazlearen omenezko eskultu-ratik hasiko gara ibiltzen (192 m). Zubiaren beste aldean, marra zurio-riekin bat, aurreko aldatz tente-

Bilbokoan ez bezala, Durangaldeko Pagasarri pagoak ere badira, ugari gainera

tik igoko gara, eta *Agirre* base-rrian (14 min) eskumara egingo dugu, Axpe baserri gainetik jarraitzeko. Pinudira heldutakoan (25 min), bide berberari eutsiko diogu Mugarako landa izeneko leporaino; alboko pista zaharra-goia izan arren, nahasgarriagoa delako. Orain arteko harkaizpeko artadiak larre zabalak eta goietan pagadi bihurtuko zaizkigu. Zutoi-netatik Oiñiturriko askara hurbil-duko gara, eta atzeko pista eskor-ta batera eramango gaitu. Harkaitzen arteko azken txanpa laburraren ostean ezagutuko




Oiñiturriko tutua eta edalontzia. A. ERRAZTI

Oiñiturri

Antzinatik ezagutzen zuten inguruotako artzainek Mugarako landa aldameneko iturria, baina erdi ezkutuan egon zen urteetan. Lehen konponketak 36ko gerraren aurretik egin arren, gaur eguneko itxura Alpino Tabira mendizale taldekoek eman zioten 1967an hasitako lanekin. Izan ere, aurrealdeko harria leherrarazi behar izan zuten, eta aska hesitik kanpo eraiki, animaliak tutuaren aldera sare ez-tezen. Benetako izen zaharra ere Anton Garciari esker zabaldu zen gure artean, Oiñiturri baita 4.000 hamarkadako mugarritze aktetan irakur daitekeena. Hala eta guztiz ere, honako hau topatuko du-zue bertako xafan idatzita: «*Grupo Alpino Tavira / Durango / Fuente de Mugarrecolanda / Inaugurada el 19 de Mayo de 1968 / Respetadme / Gracias*».

dugu Pagasarriko Baskonia mendi taldearen buzoia (839 m). Oiñiturrin berriro, ibiltariak erabakiko du zein itzulbide erabiliko duen. Hauexek izango dira aukerak: 1. Bide beretik bueltatzea litzateke errazena (erreferentziak aparte dituzue). 2. Luzeena, Durangora oinez itzultzea: Oiñiturri azpiko Katatza atakatik jaiste-a, eta bide zabalera irten bezain laster, eskumako pistatik Axpeko Santa Luzia ermitara jotzea, eta gero Arriolete eta Arteaga baserrietatik San Roke auzora irtetea (desnibel bera — 3 ordu 20 min — 11,5 km). 3. Gogorrena, mendi gehiagotara jotzea: Mugarako landako zutoinetatik eskumako pagaditik zehar Artzetagana (998 m) eta Leungana (1.009 m) tontorretara igota, marra zurio-riak bidaide, Inungana lepora jaiste-a, eta PRB-201 marrak utzi-ri, ezkerreko zutoinetik Aita Kurutzeko ermitara lehenengo, eta Mañarira gero (928 m — 3 ordu 10 min — 10 km).



SARTU

Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraldiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net



aurrera doan herria

